



Katalisia gizarte sostengarri baten giltzarri



Uzt. 18 2022

Kod. W07-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Uzt. 18 2022

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Gaur egungo erregai eta produktuen ekoizpena etorkizuneko gizarte eta ingurumen beharretara egokitzeko bidea.

Gaur egun ekoizten ditugun erregai eta produktu gehienak iturri fosiletatik datoz, gehienbat petroliotik. Iturri berriztagarri eta prozesu sostengarriagoak aurkitzea ezinbestekoa da, produktu hornidura etorkizunean mantendu nahi bada, eta batez ere etorkizun hau berdeagoa izatea nahi badugu. Baina zer alternatiba ditugu? Teknologia behar beste garatuta al dago horrelako aldaketa bat emateko?

Zientziak erantzun dizkigu, beste arlo askotan bezala, mota honetako galderak. Iturri berriztagarriak bi zati nagusitan bana ditzakegu: erregai / energia hornitzeko balioko dutenak eta produktu materialak ekoizteko balioko dutenak. Lehenengo eta behin, energia iturri berriztagarri nagusiak baliabide naturaletan aurki ditzakegu (eguzkia, haizea, ura). Ba al dakizu lurrak egun bakar batean jasotzen duen eguzki energia kontsumitzen dugula mundu guztiko biztanleriak urte oso batean? Eta bigarrenik, urteen poderioz naturak berak eman dizkigu biomasa berria sortzeko irtenbideak, kasu honetan fotosintesi bidez landareak eta zuhaitzak etengabe hazteko aukera. Hau izango litzateke etorkizunean erabili beharko dugu material berri iturria. Etorkizuneko bide sostengarria nondik eta nora doan badakigu, aprobeitza dezagun beraz!

Helburuak

Hitzaldi honen helburua etorkizunean edukiko ditugun erregai alternatibo eta material sostengarrien azalpen labur bat ematea da, batez ere katalisiak duen garrantzia azpimarratuz. Zientziak eduki dezakeen ekarpena aztertuko dugu, bai soluzio errealak garatzen eta bai ideia berriak proposatzen. Soluzio sostengarriak nahi badituzu, goazen eskutik katalisiarekin!

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2022-07-18

10:45 - 11:00 Erregistroa / Registro

11:00 - 12:15 “Katalisia gizarte sostengarri baten giltzarri “

Iker Aguirrezabal Telleria | UPV/EHU - Ingeniaritza Kimikoan doktorea

Irakasleak



Iker Aguirrezabal Telleria

Ingeniaritza Kimikoan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (2013). Ikerketa lanik handiena katalisi heterogeneoaren inguruan egin du, betiere energia eta konposatu berriztagarriak bilatzeko helburuarekin. Gradu formakuntza Euskal Herriko Unibertsitatean jaso zuen (2006) eta Masterrekoa Groningen-eko Unibertsitatean (2009, Herbehereak). Horrez gain, doktoradutza bukatu ondoren, 2014 eta 2017 bitartean University of California Berkeley-n (EEBB) lan egin zuen ikerlari moduan. Handik itzuli ondoren, 2018an lortu zuen irakasle plaza bat Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Lan hauetako asko 30 artikuluz zientifikoetan publikatu dira eta 15 proiektu nazional edo internazional baino gehiagotan parte hartu du. Horrez gain, ikerketa sariak lortu ditu kongresu desberdinetan edo baita Europa mailako ikerketa proiektuetan ere.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE

2022-07-18 ARTE

Matrikula doan

0 EUR

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN

2022-07-18 ARTE

Matrikula doan

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa